

# ZERGATIK GUDA?

Sigmund Freuden eta Albert Einsteinen arteko posta-trukaketa.



IÑIGO MARTINEZ PEÑA

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	2
ZERGATIK GUDA? .....	4
1. IDAZLEAK ETA TESTUINGURUA.....	18
2. GUDA ETA ZIENTZIAREN GARAPENA.....	18
3. GUDARI BURUZKO ADITUEN IRITZIAK .....	20
4. GUDA EKIDITEKO ERAKUNDE INTERNAZIONALA .....	23
5. GUDAREN INDUSTRIA: ARMEN NEGOZIOA .....	24
6. GUDAREN ALDEKO MANIPULAZIO MEDIATIKOA.....	25
7. GUDA ETA EMOZIOAK: ZEIN OTE DA GORROTOAREN OINARRIA? .....	27
8. GUDAK HISTORIAN ZEHAR: POLITIKA ETA ANTROPOLOGIA .....	32
9. GUDARI BURUZKO GALDERA.....	34
10. GUDA GENERO-IKUSPEGITIK.....	34
ARGIBIDEAK .....	37
ERANSKINA .....	46
BIBLIOGRAFIA .....	48

## SARRERA

Zergatik guda? Zerk bultzatzen du gizarte edota talde bat gudan sartzera? Ba al dago guda ekiditeko modurik? Zer-nolako irtenbidea eman diezaiokegu giza gorrotoari? Guda ote da konponbidea? Auzi horien inguruan aritu ziren Freud eta Einstein 1933an. Gaur egun ere hil edo biziko kezka izaten jarraitzen dute.

Ikasmaterial honetan, aipatutako bi autoreen arteko gerrari buruzko gutunak euskarara itzuli, eta —eskutitzak ardatz— solasaldirako galderak prestatu ditugu. Lana aberasteko abiapuntuak dira eta gaian sakontzea dute helburu: testua irakurtzean suertatu daitezkeen zalantzak argitzea, hausnarketa eragitea, informazio gehigarria ematea, beste arloekiko loturak piztea, etab. Beraz, ikasmaterial hau elkarrizketarako zubi modukoa izatea nahiko genuke: ikasleen artekoa ez ezik, ikasgaien artekoa ere.

Horregatik, hainbat jakintza-arlotan erabil daitezkeen galderak daude: Psikologia, Historia, Filosofia, Ekonomia, Zuzenbidea, Antropologia, Kultura Zientifikoa eta Balio Etikoak. Baina esan daiteke esku artean daukagun gaia ikasgaietatik haratago doala. Dena den, egindako ikasgaien sailkapenaren harira, gida posible bat eskaintzen dugu, arlo bakoitzaren arabera<sup>1</sup>.

Testua hiztegi edo argibide batzuekin osatu dugu, ikasleei irakurketa arintzeko. Galdera batzuek lotura zuzena dute dokumental edo pelikula hauekin: *Eulien Jauna*, *Laranja Mekanikoa*, *Bowling for Columbine*, *Manhattan Proiektua* eta *Fahrenheit 911*. Beste batzuek, liburu zein ipuinekin: *Menon*; *Buruzagiak*, *gidariak eta zapaltzaileak*; *Como nos venden la moto*; *El enigma del mal*; *Hiru Guinea*, *Gerrak ez du emakume aurpegirik*; *Emakumeak*, *kultura eta politika*; *Jenerala liburutegian*. Bestelakoetan, informazio gehigarria eskuratu daiteke galderei lotuta dauden web-orrien bidez.

Azkenik, Hodei Agirreri eskerrak eman nahi dizkiot elkarlana beti errazteagatik eta egunez egun hainbeste laguntzeagatik. Baita Andoni

---

<sup>1</sup> Ikus Eranskina 1 dokumentua.

Duandikoetxeari ere emandako aholkuengatik, eta Gasteizkoak talde antimilitaristari utzitako materialagatik. Modu berean, psikolanalisiaren inguruan hainbat kontsulta eta aholkutan lagundu didaten Monica Marini, Julio Gonzalezi eta Vilma Coccozi. Bizitzan egiten ditugun gauzak, betiere, harremanen fruitu dira: mila esker.

## ZERGATIK GUDA? (1933)

Sigmund Freuden eta Albert Einsteinen arteko posta-trukaketa.

Caputh, Postdam, 1932ko uztailaren 30ean

Freud jaun agurgarria:

Nazioen ligak eta haren Parisko Lankidetzaren Intelektualerako Nazioarteko Institutuak zera proposatu didate: nik neuk aukeratutako norbait gonbidatzea –askatasun osoarekin– nahi dudan edozein gairi buruzko ideiak trukatzeko. Beraz, aukera paregabea eskaini didate zurekin eztabaidatzeko –kontuak dauden bezala egonda– zibilizazioak aurre egin beharreko arazo guztietan larrienaren gainean. Hona arazoa: bada biderik gizateriak ez dezan gerraren hondamena paira? Gauza jakina da –zientzia modernoaren aurrerapenarekin batera– auzia hil ala biziko kontua dela zibilizazioarentzat; hala ere, ahaleginak izan diren arren, irtenbide guztiek porrot egin dute, tamalez.

Uste dut arazoari zuzenean aurre egin beharko lioketen profesionalak –politikariak eta militarrek– beren ezintasunaz gero eta kontzienteago direla. Horregatik, beste batzuen iritziak ezagutu nahi dituzte; gatazka politikoak distantziaz aztertzeke gai diren zientzialarienak, alegia. Zoritxarrez, nire pentsamenduaren ikuspegi zientifikoak ez ditu gizakion borondateak eta sentimendu ezkutuak sakontzen. Horregatik, galdera bera modu argian emateaz gain, ezer gutxi eskain dezaket zientzialarioi proposatu diguten ikerketan. Beraz, giza irriken inguruan duzun jakituria sakona dela medio, zure esku uzten dut arazoaren ebazpena. Badira hainbat oztopo psikologiko, arimaren zientzietan ezjakinok sumatu arren, nekez elkarlotu eta garatu ditzakegunak. Ziur nago zuk zeuk politikaz haratagoko hezkuntza-metodoak aholkatu ahal izango dizkiguzula, oztopo horiei aurre egiteko eta gerra ekiditeko.

Grina nazionalistek nigan eraginik ez daukaten heinean, azaleko konponbide erraza datorrit burura: **nazioarteko edozein gatazka epaitu, legezatu eta konpon dezakeen erakunde bat sortzea**. Erakunde horrek nazio guztien adostasuna eta babesak eduki beharko luke, noski. Botere legegile horren erabakiak onartu, gatazka ororen aurrean bertara jo eta erakundeak agindutakoa obeditzeko konpromisoa hartu beharko lukete estatuek<sup>2</sup>. Dena den, hona hemen proiektua gauzatzeko lehen zailtasuna: epaimahai bat gizakiz osaturiko instituzioa da, eta, ondorioz, beren erabakiak **baldintza edo presio estrajudizialen eraginpean** egon daitezke; are gehiago, erakunde horrek ez badu emandako epaiak betearazteko botere nahikorik. Betiere, kontuan izan behar da zuzenbidea eta boterea estuki lotuta daudela. Erabaki juridikoak justizia idealera hurbil daitezke –gizarteak eskatzen duen moduan–, soilik beren boterea guztiz errespetatzeko eta neurri hertsatzaileak ezartzeko ahalmena baldin badute. Gaur egun, berriz, ez daukagu nazioez gaindiko horrelako erakunderik eta izatetik oso urrun gaude –epai eztabaidaezinak eta ukaezinak agintzeko zein guztiz betearazteko gai dena–. Horren ondorioz, hauxe nire lehenengo egiaztapena: estatu guztiek baldintzarik gabe beren ekintza-askatasunari zein burujabetzari uko egin behar diote, nazioarteko-sagurtasunaren izenean. Ez dago beste biderik.

Azken hamarkadan, asmo oneko hainbat ahalegin izan dira proiektua gauzatzeko, denak alferrik. Baina ba al dago porrota azaltzeko faktore psikologiko zehatzik? Bai, horixe. Adibidez, agintariak, botere-nahiak itsututa, ez dute inondik inora onartzen beren burujabetza nazionalari mugak ezartzea. Askotan, gainera, mertzenarioak dirudite, ekonomikoki **aberasteko asmo hutsez** ari baitira. Gogoan dauzkat, esaterako, **arma-fabrikatzaileak eta -saltzaileak**: beren interes pertsonalak gizartearen interesen gainetik jartzen dituzte, eta gerrak aberastu baino ez ditu egiten.

Horretaz jabetzea, hala ere, lehenbiziko pausoa baino ez da egungo egoera ulertzeko, bestelako galdera hau baitatorkit burura: nola liteke gutxiengo den presio-talde horrek bere borondatea eta anbizioak

---

<sup>2</sup> Larriz idatzi dira *Estatu, Eliza, Eskola* bezalako hitzak boterea adierazi nahi izan denean. Xehetz, berriz, bestelakoetan.

guztioi inposatzea, gehiengoak guden sufrimenduak eta galerak pairatzen baldin baditu? [...] <sup>3</sup> Erantzuna argia da: **prentsa, eskola eta, oro har, eliza ere gutxiengo boteretsuak kontrolatzen ditu**, eta haiek bitarteko, gehiengoaren emozioak menderatu eta haien interesen arabera gobernatzen dituzte.

Dena den, berriro ere, bistako erantzun horrek ez gaitu guztiz asetzen. Galdera gehiago sortzen dira: nola da posible, manipulazio-tresna horiek direla medio, gehiengoak konbentzimendu osoz beren bizia ematea erabat sakrifikatzeraino? **Gizakion bihotza gorrotoz eta suntsipenerako gogoz beterik dagoelako**. Ez dago beste erantzunik. Garai baketsu arruntetan joera hori ezkutuan badago ere —soilik momentu puntual ezohikoetan azaltzen da—, erraz piztu eta sostenga daiteke, gizartea **psikosi kolektibora** gidatuz. Ziur aski gizakion gorrotorako joera da orain arte hausnartutako faktore korapilatsu guztien gakoa. Eta nork argitu dezake enigma hori, ez bada giza pultsioetan aditua zaren horrek?

Hona hemen azken zalantza: ba al dago modurik gorrotoaren eta suntsipenaren psikositik gizakia salbatzeko eta gizakiaren eboluzio mentala kontrolatzeko? Gezurra badirudi ere, hemen ez naiz alfabetatu gabeei buruz ari. Esperientziak kontrakoa erakusten digu: **intelektualak arriskutsuak izan daitezke, haiek kontrolatzen baitute herriaren borondatea**. Izan ere, ez daukate bizitzarekin harreman zuzenik: inprimatutako orrialdeekin erlazionatzen dira, eta **jolastu** besterik ez dute egiten **paperezko bizitzarekin**.

Oraingoan bai, azken gogoeta: nire gutunean nazioen arteko gudak azpimarratu ditut; nazioarteko gatazkak, alegia. Baina, jakin badakit **gorrotorako pultsioa bestelako egoera askotan ere** izan badugula, tamalez. [...] <sup>4</sup> Hala ere, gizakien arteko gatazkarik arruntena, krudelena eta bitxiena azpimarratu nahi izan dut, nazioarteko gatazkak saihestea lortzen badugu, bestelakoak ere saihestuko baititugu.

---

<sup>3</sup> [...] *Gehiengoa* maila guztietako **soldaduek** osatzen dute, baita **guda ogibide** dutenek ere: uste dute arrazaren interes gorena babesten dutela eta erasorik hoberena defentsa dela.

<sup>4</sup> [...] Pultsio horren adibide ditugu sasoi bateko guda zibilak —debozio erlijiosoen eraginez sortuak—, egungo arazo sozialak edota **gutxiengo etnikoen aurkako jazarpenak**.

Badakit zure idatzietan landu duzula hizpide darabilgun premiazko arazo hau, zuzenean edo zeharka. Hala ere, zure iritzia eta egin dituzun azken ikerketak oso lagungarriak izan ahal zaizkigu, munduan bakea lortzeko eta egungo zailtasunak ekiditeko. Azalpen hori aukera ezin hobea izan daiteke bide berriak argitzeko eta eraikitzeko.

Adeitasunez,

Albert Einstein



Einstein maisu agurgarria:

Zure gonbidapena gogo onez hartu dut. Bereziki poztu nau zure intereseko –eta interes orokorreko– gai bati buruzko bion arteko ideia-trukaketak. Dena den, bestelako gai bat aukeratuko zenuela uste nuen: egungo giza ezagutzaren mugak aztertzea –fisikaren eta psikologiaren bideak desberdinak izan arren– eta trukatzeko horrekin espazio komunak aurkitzea. Horregatik harritu ninduen gizateriak gerraren hondamena saihesteko egin dezakeenari buruzko zure galderak. Hasieran, ikaratu egin ninduen nire –gure esateko zorian egon naiz– erantzuteko gaitasun faltak, eta estatuburuaren zeregina zela etorri zitzaidan. Gerora, aldiz, konturatu nintzen ez zenuela arazoa planteatzen natura-ikertzaile eta fisikari moduan, baizik eta Nazioarteko Ligaren eskaerari erantzuna ematen dion **filantropo** moduan; adibidez, **Fridtjof Nansen** esploratzaileak Lehen Mundu Gerrako etxegabe gosetia laguntzea onartu zuen bezala. Gogoan izan nuen orduan ez nituela zertan proposamen praktikoak eman, gudaren prebentzioaren arazoa psikologikoki aztertu soilik.

Zure gutunean, hala ere, esan duzu jada gaiari buruz esan zitekeen guztia. Haizearen indarrak egin duzu aurrera, eta nik zure bideari jarraitu besterik ez dut: esan duzuna berretsi, eta, agian nire jakintzaren –edo nire usteen– arabera, gauzak sakonago adierazten saiatuko naiz.

Zure abiapuntua zuzenbidearen eta boterearen arteko harremana izan da. Hasiera benetan zuzena gure ikerketarako! Gordinago adierazteko, utziko zenidake *indarkeria* (*Gewalt*) hitza *boterearen* ordeztu erabiltzen? Gaur egun, zuzenbidea eta indarkeria guretzat kontrakoak diren arren, argia da haien arteko lotura. Gizadiaren jatorriak hala erakusten digu behintzat. Barkaidazu aurrerantzean agerikoa dena nobedade gisa kontatzen baldin badut, baina nire azalpenaren logikak hala eskatzen du.

Hasiera batean gizakion arteko gatazkak indarkeriaren bidez konpontzen ziren. Animalia-erreinuan hala da, eta gizakiak ez luke bere burua hortik kanpo sailkatu behar, nahiz eta gaur egun bestelako konponbideak beharrezkoak izan abstrakzio-maila altuko argudio-eztabaidetan. Edonola ere, giza eboluzioan geroago agertuko dira ideien arteko gatazkak. Indartsuenak agintzen zuen antzinako giza horda txikietan, eta hark erabakitzen zuen nor zeren jabe zen. Aurrerago, tresneriak ordezkaturiko du indarra: arma hobekak dituenak eta erabiltzen trebeagoa denak lortuko du garaipena. Armen garapenak, beraz, indar basatia baztertu eta buru-ahalmena lehenetsiko du, nahiz eta borrokaren azken helburua, finean, berbera izan: galtzailea behartzea aurkakotasunari eta indarrari uko egitera. Erabateko garaipena etsaia betiko gainetik kentzea litzateke; hiltzea, alegia. Abantaila bikoitza da: batetik, aurkakotasuna berriro piztea ekiditen da; bestetik, eskarmentua ematen zaie beste batzuek bide berari jarraitu ez diezaioten. Etsaiaren heriotzak, are gehiago, gerora aipaturiko dugun gizakiaren pultsio-joera bat asetzen du. Baliteke, dena den, etsaia hil gabe, bizirik eta beldurturik mantentzeak abantailak izatea eta norik bere zerbitzura erabiltzea. Kasu horretan, heriotza eman gabe, aurkaria menderatzera mugaturiko litzateke erabilitako biolentzia. Hasiera batean behintzat horretan datza etsaiaren bizitzarekiko errespetua. Hemendik aurrera, ordea, garaileak bere segurtasuna –hein batean– murriztuta sentituko du, galtzailearen mendekua posible dela-eta.

Horra hor boterearen inperioa jatorrizko egoeran, indarkerian zein adimenean oinarrituta. Mendek aurrera egin ahala, indarkeriatik zuzenbiderako bidea egin zen. Baina nola? Bide bakarra oinarri, nire ustez: gehiengo ahulagoa batu zen, norbanakoaren indarra gaintzeko. “*L’union fait la force*”. Batasunak egiten dio aurre indarkeriari, eta taldeak zuzenbidea eraikitzen du pertsona bakar baten indarraren kontra. Zuzenbidea, beraz, komunitatearen boterea da. Baina, noski, indarkeria izaten jarraitzen du! Eta prest dago talde-interesari aurre egiten dion norbanakoa baliogabetzeko, bitarteko eta helburu berberekin. Desberdintasun bakarra hau da: ezarritako indarkeria ez da gizabanakoarena, baizik eta gizartearena. Biolentziatik zuzenbide berrirako pausoa gauzatzeko, dena den, baldintza psikologiko hau bete behar da: gehiengoaren batasunak iraunkorra izan behar du. Adibidez,

behin-behinekoa bada batasuna, eta hiperboteretsua garaitu ondoren berriro ere sakabanatuko balitz taldea, ezer gutxi lortuko litzateke. Hurrengo batean, bere burua oso indartsutzat daukanak agintea berriz bortizki hartu nahiko luke eta bere inperioa ezarri, eta tira-bira hamaika aldiz errepikatuko litzateke. Komunitateak tinko mantendu behar du; horretarako, antolatu, legeak jakinarazi, matxinadak saihestu, emandako aginduak betearazteko erakundeak sortu eta biolentziaren monopolioa bere egin behar du komunitateak. Interesak partekatzen dituen komunitate horrek pertsonen arteko talde-lotura sentimentalak sortuko ditu, eta horretan datza beren benetako indarra.

Funtsezkoa esanda dago: emozionalki loturiko gehiengoaren esku jarri behar da indarra. Egitura horri osagarriak besterik ez zaizkio batu behar. Komunitatea indar bereko pertsonen osatuta badago, erraza da egoera. Nork bere indarra bortizki erabiltzeari uko egin behar dio –taldearen legeak bete, alegia–, bizikidetzara seguru eta lasaia lortzeko. Egoera baketsu eta ideal hori, ordea, maila teorikoan soilik planteatu daiteke. Errealitatea askoz ere konplikatuagoa da, **komunitate barruan botere-harremanak** berezkoak baitira: gizon eta emakumeak, guraso eta seme-alabak, eta, gerraren ondorioz, jaun edo esklabo bihurtuko diren irabazle eta galtzaileak. Zuzenbidea, modu horretan, komunitate barruko botere-harremanen arteko isla bilakatuko da: **menderatzaileek beren interesen arabera legeak egingo dituzte, eta menderatuei eskubideak murriztu**. Aipaturiko tentsioen arabera, bi joera ditugu, biak ezinbestekoak zuzenbidearen garapena ulertzeko. Batetik, talde-legeak betetzeari uko egiten dioten zapaltzaileena, zuzenbidearen ordean **haien indarkeria ezartzeko irrikaz** daude eta. Bestetik, zapalduen borrokak: horiek botere handiagoa lortzea dute helburu, legeen aurrean berdintasuna izateko. Hainbat faktore historiko direla medio, bigarren joera hori esanguratsuagoa da, komunitate barruko botere-harremanak aldatzen direlako. Kasu horretan, botere-egoera berrira egokituko da zuzenbidea. Bestela –eta ohikoagoa da– zapaltzaileek aldaketak onartu ezean, matxinada piztuko da; hau da, guda-zibila, eta baliogabetu egingo dira ordura arteko legeak, hurrengo zuzenbide legala ezarri arte. Ba ote dago, hala ere, zuzenbide-aldaketak era baketsuan egiterik? Agian, komunitate barruko pertsonen garapen kulturala eta heziketa aldatuko bagenu... baina aurrerago helduko diogu gai horri.

Argi dago ezinezkoa dela zuzenbidearen gainean eraturako komunitate baten barruan ere gatazken konponbide bortitza saihestea. Beharrezkoak dira adostasun minimo batzuk. Horrek gatazken irtenbidea ikusarazten laguntzen du. Gizadiaren historia aztertuko bagenu, konturatuko ginatke **luzea dela etengabeko gatazken zerrenda**, eta gatazkek gerrara garamatzatela: talde sozial bat edo batzuk beste talde baten aurka, gehiengo bat gutxiengo baten aurka (udalerrri, eskualde, familia, herri edo erreinu izan). Gerran irabazleak eta galtzaileak ditugu, eta azken horiek erabateko menderatze eta **lapurretak pairatuko dituzte**. Ezinezkoa da konkista-gerra horiei buruzko iritzi bateratu bat ematea. Iraganen gerra askok ezbeharrak baino ez zituzten ekarri **–turkiarren eta mongoliarren** artekoak bezala, adibidez—; beste batzuk, ordea, indarkeriatik zuzenbiderako eraldaketan lagungarriak izan ziren, giza talde bateratuagoak osatu zirelako eta biolentzia ekiditeko antolakuntza legal berriak eraiki zituztelako. **Erromatar konkisten** ondorioz, adibidez, bake preziatua lortu zen herri mediterraneoetan. Frantziako erregeen handinahikeriak **Frantzia bateratu** zuen. Kontraesankorra badirudi ere, agian geure buruari galdetu beharko genioke ea gerra ez ote den **betiereko bakea** lortzeko bide desegokia. Izan ere, indarkeriaren kontrolgune nagusi bat ezartzeko gauza da, etorkizuneko gudak ekidin eta **batasunaren izenean aginte-eremua zabaltzen** baitu. Baina onartu beharko genuke hori ez dela biderik aproposena; izan ere, garaipenaren emaitzak ez dira iraunkorrak, **indarkeriaz batu diren lur-eremuak sakabanatzeko joera baitute haien arteko kohesio eskasagatik**. Konkista batzuek lurralde eta talde zabalagoen bateratzea lortu badute ere, batasun partzialak baino ez dira izan, eta gerrarako bidea inoiz baino gehiago areagotu besterik ez dute egin. Konkista zabalak egiteko irrikaz, gerra ohikoa izatetik ezohikoa izatera pasa da, baina **egungo gudak askoz ere suntsitzaileagoak dira**.

Neu ere zure ondorio berberetara heldu naiz, bidea luzeagoa izan bada ere. Gerren prebentzio segurua lortuko da, baldin eta gizakiok gatazken konponbiderako erakunde bat adostu eta haren botere nagusia onartzen baldin badugu. Derrigorrezko bi baldintza ditugu, beraz: goi-erakunde hori sortzea eta hari ematen zaion boterea ontzat hartzea. Biak ala biak

beharrezkoak dira. Nazioen Erakundea horrela pentsatu eta proiektatu izan bada ere, bigarren baldintza ez da bete: ez dauka berezko autonomiarik, erakundean parte hartzen duten estatuek aitortu ezean. Itxaropen gutxi bi baldintza horiek betetzeko, egun behintzat. Hala ere, gizadiaren historian orain arte ez da egon horrelako erakunde proiektu handirik. **Jokabide eredugarria oinarri**, autoritatea eskuratzeko eta **betebehar batzuk ezartzeko** saiakera izan nahi du. Aurretik aipatu dugunez, komunitatearen batasunerako bi baldintza hauek ezinbestekoak dira: indarkeriaren monopolioa batetik, eta kideen arteko lotura emozionala mantentzea bestetik –psikoanaliaren hiztegi teknikoan **identifikazioak** deiturikoa–. **Bietako bat betetzearekin aski izan daiteke komunitateak elkarrekin irauteko**. Identifikazioak, dena den, gizabanako guztiek harekin bat egiten dutenean funtzionatzen du soilik. Historiak hala erakusten digu. Baina zer indar dute? Adibidez, **panhelenismoari** esker, grekoek uste zuten ondoko herrietako barbaroak baino hobekak zirela –gerora joko olinpikoetan, **orakuluetan** eta haien erlijioetan adierazi bezala–. Haien arteko gatazkak baretu baretu zituen, baina ez zituen guztiz ekidin. Hainbatetan barruko gatazkak izan ziren, eta Grezian kanpo, aliantzak egin zituzten panhelenismoaren aurkako pertsiarrekin, haien elkarteko hiri baten kontra. Bestalde, komunitate kristauaren parte sentitzea talde sentimendu indartsua bada ere, ez zuen saihestu berpizkundeko hiri kristau batzuek **sultanari** laguntza eskatzea berdinen arteko gerretan. Gure garaian, gainera, batu ahal gaituen identifikazio indartsurik ez dago. Esango nuke ideia nazionalisten arrakastak kontrako efektua ere sortzen duela: **beste nazioekiko gorrotoa sustatzea**. Batzuen ustez, gerra guztiekin amaitzeko modu bakarra ideia **boltxebike**en garaipena da. Hala eta guzti, errealitate horretatik urrun gaude, eta lortuz gero, makina bat guda zibilen ondorio litzateke. Finean, kondenaturik dago botere erreala ideiangatik ordezkatzeko saiakera. Ezin dugu ahaztu jatorrian zuzenbidea indarkeria hutsa besterik ez zela izan, eta oraindik ere indarkeriaz elikatzen dela.

Zuk egindako beste baieztapen baten inguruan aritu nahiko nuke orain. Baderitzozu harrigarria dela gizaki askok guda biziki atsegin izatea, eta, beraz, gerrara bultzatzen dituen gorroto zein suntsipen indar baten susmoa daukazu. Horretan ere bat nator zurekin. Uste dugu halako pulstio bat badela, azken urteetan buru-belarri aritu gara nola

azaleratzen den ikertzen. Utziko al zenidake kostata definitutako pultsioen teoria psikoanalitikoaz azaltzen? Gizakiok bi pultsio mota dauzkagu, eta ez besterik. Batetik, erotikoak edo sexualak<sup>5</sup> ditugu, elkartu eta elkartuta mantentzeko joera dutenak; bestetik, agresiboak edo suntsitzaileak, txikitzea eta hiltzea helburu dutenak. Azken finean, teorikoki adierazi dugu guztiz ezaguna den **maitasunaren eta gorrotoaren arteko aldea**, eta, agian, lotura dauka zientzian erabiltzen duzuen **erakarpen-indarrarekin eta alderapen-indarrarekin**. Kontzeptuok, hala ere, ez dira ongiarekin eta gaizkiarekin konparagarriak. Biak ala biak biziraupenerako ezinbestekoak dira, bien arteko elkarrekintzari esker sortzen baita bizia. Badirudi ez dagoela pultsio bakarreko ekintza gardenik, neurri batean behintzat besteari lotua ere ageri da –**aleazio kimikoen** modura–. Horrek batzuetan pultsioaren xedea aldatzen du; besteetan, berriz, arrakastarako ezinbesteko baldintza egiten du. Adibidez, autoerotismoak agresioaren beharra izan ohi du, nor bere burua babesteko. Modu berean, kanpora zuzendutako maitasun-pulstioak botere-irrika behar du objetuaz jabetzeko. Pulstioen arteko elkarrekintza dela-eta, zaila egin zaigu biak bereiztea.

Oraindik ere elkarrekin egindako bidea jarraitzeko prest bazaude, esan beharra daukat, giza ekintzek beste mota bateko konplexutasunak dauzkatela. Ekintza baten abiapuntua suntsipenak eta Erosek osatzen dute; beraz, guztiz ezohikoa litzateke berau pulstio bakarrekoa izatea, askotariko xedeak biltzen baitira. Jakin bazekien zuen kidea izandako **Lichtenberg** irakasleak –Göttingenen Fisika eskolak ematen zituen gure klasikoen garaian–, eta, agian, horregatik izan zen ezagunagoa psikologo moduan fisikari baino. Berak asmatu zuen Motibazioen Arroa: “Giza jokabidearen arrazoiak **haize-arrosaren 32 norabideen** arabera izendatu eta sailkatu daitezke; besteak beste, **ogia-ogiospea, edo ospea-ospeogia**”. Gizakiak gudara deituak direnean, beraz, baliteke beren erantzun baikorrean askotariko barne-arrazoiak egotea, nobleak zein xumeak, **aitortzen direnak eta isiltzen direnak...** Ezin guztiak zerrendatu. Isiltzen direnen artean historian zein eguneroko bizitzan sufritutako krudelkeriak zerrenda ezinak ditugu, eta haien isla dira suntsipenaren eta erasotzearen gozamina. Pulstioa asetzen laguntzen du nahi suntsitzaileak eta nahi erotikoak elkarri lotuta egoteak.

---

<sup>5</sup> Sexualitatearen ohiko ikuspegiak haratago, **Platonen Otoruntzan** Erosek duen zentzuan.



Historiako gertaera krudelen aurrean, sarritan, argudio idealistak aitzakia besterik ez dira, bulkada suntsitzaileak aurrera eramateko. Beste batzuetan, berriz –Inkiszio Santuaren kasuan, adibidez–, argudio idealak kontziente izan arren, badirudi suntsitzaileek inkontzienteki jarduten dutela. Biak dira posible.

Agian gehiegizko arreta eskatzen nabil, dagokigun gaia gerren prebentzioa baita, eta ez gure teoria psikoanalitikoak. Hala ere, pultsio-suntsitzailearen kontzeptua gehiago sakondu nahiko nuke, duen esanahia bere osotasunean aintzat hartzeko. Gure espekulazioen arabera, izaki bizidun guztien barren-barrenean eragina dauka: bizirik dagoena deskonposatu, eta materia bizia bizigabe egiten du. Horri heriotza-pultsioa edo hil-irrika deritzo, eta pultsio erotikoari edo bizitzeko grinari kontrajartzen zaio. Hil-irrika kanpora bideratzen bada, suntsitzailea izango da, gorputzaren atal zehatzen laguntzarekin: izaki-bizidunek besteen bizitza suntsituko dute, haien bizitza babesteko. Aldiz, eta neurri batean behintzat, heriotza-pultsioak izakien barnean ere jarduten du, eta hori kontuan hartuz, hainbat fenomeno psikiko —normalak zein patologikoak— azaltzeko ahaleginak egin ditugu.

Kontzientzia morala barne-agresio gisa azaltzera ere heldu gara: geure buruaren kontrako indarkeria garbia! Barneratze hori gehiegizkoa baldin bada, osasunerako kaltegarria izan daiteke; eta, berriz, pultsioak kanpoko errealitatea suntsitzeko erabiltzeak norberaren zama psikikoa arintzea dakar. Gorrotoaren eta giza joera arriskutsuen aitzakia biologikoa besterik ez ote da? Tamalez, badirudi giza naturarekin lot daitezkeela, gure haiekiko erresistentziarekin eta azalpen faltarekin baino gehiago. Pentsa dezakezu gure teoriak zorientzua ez den mitologia hutsa baino ez direla. Baina ez al da mitologikoa zientzia natural guztien azken azalpena? Akaso bestelako egoera bizi du gaur egungo fisikak?

Hona hemen orain arte esandakoaren ondorio zuzena: gizakiengan joera agresiboa ezabatzeko saiakerak alferrikakoak dira. Antza, lurralde zorientzua daude. Bertan, natura emankorrak gizakiei biziraupenerako behar duten guztia bermatzen die, eta jendea –elkar erasotu gabe– modu baketsu eta lasaian bizi omen da. Gustatuko litzaidake ustezko

zorioneko gizakiei buruz gehiago ikertzea, baina niri sinesgaitza egiten zait. Boltxebikeek ere zin egiten dute gizakien arteko borroka amaituko direla, guztion behar materialak asetu eta berdintasuna ezartzen denean. Itxaropen ustelak nire ustez! Oraingoan leporaino armaturik daude, eta haien batasuna bermatzeko, etsaien kontrako gorrotoa zabaltzen dute. Bestetik, eta zuk zeuk diozun moduan, kontua ez da gizakion heriotza-pultsioa guztiz ezabatzea, baizik eta beste irtenbide bat ematea, gudara ailegatu gabe.

Pultsioei buruzko mitologiatik abiatuta, erraz topa dezakegu guda ekiditeko zeharkako bidea. Guda pultsio agresiboak gainezka egitearen ondorio bada, antagonikoa zaion pultsio erotikoa aldarrikatu beharko genuke. Gizakien arteko maitasun-lotura sustatzen duen oro, gudaren kontrako antidotoa da. Lotura horiek bi eratakoak izan daitezke. Batetik, maitasuneko objektuekin dauzkagun lotura berberak, baina azken helburu sexualik gabe. Psikoanalisiak ez du zertan lotsatu maitasunaz hitz egiteagatik. Hori bera dio erlijioak: “maita ezazu lagun hurkoa zeure burua beste”. Zer erraza eskatzea eta zer zaila betetzea! Bestetik, maitasun-loturak identifikazioaren bidez ere sortzen dira. Komunitate barruan elkartasuna eragiten duen orok sentimendu komunak eraikiko ditu; hau da, identifikazioak. Oinarrizko egitura horien gainean eraikitzen da gizartea.

Aginte-gehiegikeriaren kontrako zure kexa bide, burura datorkit gerra zeharka ekiditeko beste aukera bat. Berezkoa da bidegabekeria gizakiongan: agintarien eta mendekoen arteko bereizketa. Mendeko gehienek autoritate baten beharra daukate. Autoritateak haien ordezenbait erabaki hartuko ditu, eta mendekoen, oro har, agindutakoa zalantzarik gabe beteko dute.

Ezinbestekoa da, beraz, agintarien heziketa bereziki zaintzea –orain arte zaindu dena baino gehiago behintzat–. Kikilduko ez diren agintari librepentsalariak behar ditugu, egiaren aldekoak. Horrelako agintari arrazionalak, aldiz, ez datoz bat Elizaren zentsurarekin edo Estatuen nagusikeriarekin. Maitasun-loturak baino iraunkorragoak eta sendoagoak lirarteke arrazoiaren bidez eraikitakoak. Giza elkarte perfektuan arrazoiak menderatuko lituzke grinak guztiz. Itxaropen



**utopikoa** baino ez da hori! Gerra zeharka oztopatzeko bestelako bideak errazagoak dira, baina ez dute bat-bateko emaitzarik eskaintzen. Eta ez da batere desiragarria garia astiro-astiro ehotzen duen errota, baliteke irina heldu orduko gosez hilda egotea!

Aholkua eskatu bai, baina errealitatetik urrun dagoen teorilariak –urgentziazko arazo praktikoen aurrean– ez du konponbide handirik eskaintzen. Arriskuari aurre egin behar diogu, kasuan kasu, momentuan dauzkagun baliabideak erabiliz. Dena den, bereziki jorratu nahiko nuke zure gutunean landugabeko gai bat: zer dela-eta gu bion —zein beste askoren— gudaren kontrako altxamendua? **Zergatik ez dugu onartzen bizitzako beste zoritxar guztiak bezala?** Guda naturala dela dirudi, biologikoki azal daiteke, eta ia-ia saiheztezina dugu. Ez zaitez esandakoagatik haserretu, mesedez. Sasi ikertzaile lana egiten ari garen heinean, besteen gaintik gaudela sinets dezakegu, egia izan gabe. Halere, esango nuke denok bizitzeko eskubidea daukagula eta gudak suntsitu baino ez gaituela egiten: norbanakoa egoera duingabeetara bultzatzen du, norbere borondatearen kontra beste batzuk hiltzera behartzen ditu, esfortzu handiz eraikitakoak apurtzen ditu, etab. Egungo guda egiteko modua ikusita, gainera, uste dut gudak ez duela ezta **antzinako heroismo aukerarik ematen** ere, eta suntsipenerako garapen teknologikoak direla-eta, etorkizuneko gerrak bi aldeek hilketa masiboarekin amaitu dezakeela. Hori guztia kontuan izanda, gezurra dirudi oraindik ere gudaren kontrako adostasun unibertsala lortu ezin izana. Aipatutako argudioak, dena den, eztabaidagarriak izan daitezke.

Ez al dauka komunitateak norbanakoaren bizitzaren gaineko eskubiderik? Guda guztiak berdin-berdin gaitzets daitezke, edo batzuk besteak baino justifikagarriagoak ote dira? Nazioak eta erresumak beste batzuk konkistatzeko eta suntsitzeko prest dauden bitartean, ez al dira horiek ere defentsarako armaturik egon behar? **Galdera horiek guztiak** alde batera utziko ditut, ez baitatoz bat zure gonbidapenarekin. Zergatik egiten dugu orduan gerraren aurka? Ezin dugulako besterik egin. Bakezaleak izatera beharturik gaude, arrazoi organikoak direla-eta. Gerora, erraza egingo zaigu gure jarrera justifikatzeko argudioak asmatzea.

Esandakoa hobeto azaldu behar dut uler dadin. Gizadia kulturalki garatzen ari da, horretan dihardu antzinatik –prozesu horri *zibilizazioa* deritzote batzuek–. Hari zor dizkiogu gizakion **lorpen nagusiak**, eta, akaso, giza **sufirimenduen** parte bat ere. Kulturaren ezaugarri batzuk oso agerikoak izan arren, ez dago batere argi zein den jatorria, ezta zer etorkizun duen ere. Baliteke giza espeziaren desagerpenaren eragilea izatea, zentzu askotan sexualitatearen **inhibizioa** dakar eta: kultura gabeko edo maila baxuko herriak kultura handikoak baino askoz gehiago ugaltzen ari dira. Animalia basatien etxekotze-prozesuaren antzekoa ote da? Kulturak aldaketak eragiten ditu gorputzean, nahiz eta garapen kulturala prozesu natural gisa irudikatzea ez den batere ohikoa. Eboluzio kulturalak eragiten dituen aldaketa psikikoak argiak dira. Helburu eta joera pultsionalak desplazatu eta mugatu egiten ditu. **Gure arbasoentzako atseginak ziren hainbat sentrazio, guretzako axolagabeak, nazkagarriak edo jasanezinak dira.** Gorputzean bertan txertatzen zaizkigu ideal etiko zein estetiko berriak. Kulturaren ezaugarrien artean bi dira nagusi: pentsamenduaren indarrak bizitza pultsionala menderatzea eta heriotza-pultsioa norberarengana bideratzea –aipatutako onura zein arriskuekin–. Gerrak bortitz eta erabat ukatzen ditu kulturak gugan ezarri dituen jarrera psikologikoak; ondorioz, haren kontra altxatzen gara bai ala bai. Ezin dugu jasan! Ez soilik intelektualki edo sentimentalki, baizik eta garen-garenagatik. Bakezaleak gara izaeragatik. Guretzat gerraren krudelkeriak bezain garrantzitsuak dira eragiten dituen degradazio estetikoak.

Zenbat itxaron behar izango dugu besteak ere bakezale izateko? Ezin asmatu, baina itxaropentsua da eta agian ez hain utopikoa bi eragile hauen arteko lotura: kulturaren papera eta etorkizuneko guden ondorioei diegun justifikatutako beldurra. Guden amaiera ote? Ezin jakin zehatz-mehatz nola suerta daitekeen. Bitartean esan dezakegun bakarra da **kulturaren alde egitea gudaren aurka egitea ere badela.**

Adeitasunez agurtzen zaitut, eta barkaidazu nire azalpenak ez badira espero bezain gustukoak izan.

Sigmund Freud

# TESTUAREKIN SOLASEAN

## 1. IDAZLEAK ETA TESTUINGURUA

- 1.1. Bila itzazu Sigmund Freuden bizitzaren gaineko datu esanguratsuak.
- 1.2. Bila itzazu Albert Einsteinen bizitzaren gaineko datu esanguratsuak.
- 1.3. Zer-nolako egoera soziopolitiko bizi zuen Alemaniak 1933an?
- 1.4. Zer dela-eta debekatu zen bien arteko posta-trukaketa Alemanian?

## 2. GUDA ETA ZIENTZIAREN GARAPENA

- 2.1. Zer-nolako informazioa eman zion Einsteinek Estatu Batuetako Roosevelt presidenteari 1939an? Einstein bakezalea zela kontuan izanda, zergatik da kontraesankorra informazio hori?

Roosvelti eskutitza idatzi baino, hobe atzamarrak erre izan banitu.

Albert Einstein

## MANHATTAN PROIEKTUA

- 2.2. “Zientzia modernoaren aurrerapenarekin batera...”

Lehenengo bonba atomikoa diseinatzeko, Estatu Batuetako gobernuak orduko zientzialaririk ospetsuenak kontratatu zituen. Horretarako martxan jarri zuten **Manhattan proiektua** Oppeheimerren gidaritzapean. Ikus itzazue proiektu horren nondik norakoak:

<https://www.youtube.com/watch?v=mf2OGvoKHv8>

- 2.3. Manhattan proiektuko hainbat zientzialariren ustez, bonba atomikoak segurtasun-proba gehiago behar zituen, zibilen kontra bota

aurretik Japonian. Bonbaren ondorio posibleak hobeto kalkulatu behar ziren. Horregatik, bonba lehertzeko epea luzatzea eskatu zioten Truman presidenteari (Roosevelten ondorengoa).

(Ikus bideoa 31:43/33:06 min)

Zer iruditzen zaizu zientzialariek egindako eskaera? Eta presidenteak emandako erantzuna?

2.4. Zer deritzozu Estatu Batuetako gobernuak Bigarren Mundu Gerra amaitzean **Oppenheimer** fisikariarekin hartutako neurriari?

(Ikus bideoa 39:23/40:20 min.)

2.5. **Claude Eatherly** pilotuak Hiroshimako sarraskian hartu zuen parte Estatu Batuetako armadarekin. Bilatu ezazu pilotuari buruzko informazioa eta azter ezazu Estatu Batuetara itzultzean izandako jarrera-aldaketa (ez zuen kondekoraziorik onartu, lapurretan hasi zen, aitortu zuen bakezalea zela...).

Haren biografian oinarrituta, saia zaitez ipuin labur bat idazten.

Informazio osagarria:

<http://www.elmundo.es/elmundo/2010/06/24/cultura/1277401673.html>

<http://www.europapress.es/internacional/noticia-legado-ii-guerra-mundial-bomba-atmica-20150806090813.html>

2.6 “Armen garapenak, beraz, indar basatia baztertu eta buru-ahalmena lehenetsiko du”.

Gaur egun soldadu-errobotak ditugu, baina zer dira droneak? Bilatu ezazu informazioa.

2.7. “Azken finean, teorikoki adierazi dugu guztiz ezaguna den maitasunaren eta gorrotoaren arteko aldea, eta, agian, lotura dauka zientzian erabiltzen duzuen erakarpin-indarrarekin eta alderapin-indarrarekin”.

Zer dio Enpedoklesekin —antzinako filosofo-zientzialari presokratikoa— maitasunaren eta gorrotoren arteko erakarpin eta alderapin indarrari buruz?

2.8. “Baina ez al da mitologikoa zientzia natural guztien azken azalpena?” Zientziak ere oinarri mitologikoak dauzka? Bilatu ezazu atomoaren teoriaren jatorria.

2.9. “Gizadia kulturalki garatzen ari da; horretan dihardu antzinatik –prozesu horri zibilizazioa deritzote batzuek–. Hari zor dizkiogu gizakion lorpen nagusiak, eta, akaso, giza sufrimenduen parte bat ere bai”.

Freudek garapen kulturalak ekarritako lorpen eta sufrimenduen arteko loturei buruz idatzi zuen *Egonezina kulturean* liburuan. Hirugarren atalean hainbat adibide eman zituen: “Distantziaz haratagoko trenbiderik gabe, gure seme-alabek<sup>6</sup> ez zuten jaioterrik sekula alde egingo, eta ez genuen telefonoaren beharrik izango haien<sup>7</sup> ahotsa entzuteko”. Topatu bertan ematen dituen adibide gehiago. Zuri zein bururatzen zaizkizu? Zertan laguntzen baina aldi berean kaltetzen gaitu gaur egungo garapen teknologikoak?

2.10. Zientzialarien etika: bilatu ezazu Alexandre Grothendiecken bizitzari buruzko informazioa. Zer dela-eta alde egin zuen ikerketa-proiektu taldetik 1970ean? Zer iruditzen zaizu?

### 3. GUDARI BURUZKO ADITUEN IRITZIAK

3.1. “Beste batzuen iritziak ezagutu nahi dituzte; gatazka politikoak distantziaz aztertzeke gai diren zientzialarientzat, alegia”.

Lauko taldeetan eztabaidatzeko gaia: Einsteinen hitzetan, zientzialariek gudari buruzko iritzia eskatu zieten. Ba ote dago aditurik bizitzaren arlo guztietarako?

Erantzun baino lehen, kontuan hartu Platonek idatzitako *Menon* elkarrizketa. Testu klasiko horretan bi galdera dira nagusi: 1) Zer da ikastea? 2) Bertutea bera ikas daiteke? (*Bertutea* Antzinako Grezian: giza jokabide bikaina, zuzena edo etikoki egokia).

---

<sup>6</sup> Jatorrizko testuan *seme*.

<sup>7</sup> Jatorrizko testuan *bere*.

Sokratesen iritziz, jakinduria irakats daiteke arlo batzuetan (...),

Azter ezazu (...): Menon, hau sendagile ona izatea<sup>8</sup> nahiko bagenu, zer irakaslerengana bidaliko genuke? Sendagileengana, ezta?

- Bai, noski.
- Eta zapatari ona izatea<sup>9</sup> nahiko bagenu zer, akaso ez zapatariengana?
- Bai.
- Eta gainerakoak ere horrela?
- Bai, noski.

Platon; *Menon*. Klasikoak bilduma, 2005 (209. or.)

baina ez ordea bizitzaren arlo garrantzitsuenean: etikan.

Bertutea irakasgarria balitz, gizaki<sup>10</sup> on batengandik ez litzateke inoiz seme edo alaba<sup>11</sup> txarrik sortuko, bere esan zentzuzkoei kasu eginez. Baina irakatsiz ez duzu inoiz pertsona<sup>12</sup> txarra on bihurtuko.

Platon; *Menon*. Klasikoak bilduma, 2005 (221.or.)

Beraz, teknikak irakatsi eta ikas daitezke, ez ordea balio etikoak. Zergatik? Askeak gara ekintzetan, baina erantzukizuna eta jarrera jokoan ditugu. Zer uste duzu?

3.2. “Mendeko gehienek autoritate baten beharra daukate. Autoritateak haien ordez zenbait erabaki hartuko ditu, eta mendekoek, oro har, agindutakoa zalantzarik gabe beteko dute”.

---

<sup>8</sup> Jatorrizko testuan *bihurtzea*.

<sup>9</sup> Jatorrizko testuan *bihurtzea*.

<sup>10</sup> Jatorrizko testuan *gizon*.

<sup>11</sup> Jatorrizko testuan *seme*.

<sup>12</sup> Jatorrizko testuan *gizon*.

*Sapere aude!* Aldarrikatzen zuen Kant filosofo ilustratuak. Ausartu zaitez pentsatzera eta zeure kabuz erabakiak hartzera! Nahiago ote dugu autoritate batek egin behar duguna esatea eta aginduak betetzea? Zein dira bestelako jarrera horiek dauzkaten abantailak eta desabantailak? Non kokatzen duzu gehiago zeure burua eta zergatik?

3.3. “Ezinbestekoa da, beraz, agintarien heziketa bereziki zaintzea –orain arte zaindu dena baino gehiago behintzat–”.

Nolakoa izan beharko luke politikarien heziketak? Zer uste duzu behar duela pertsona batek agintari izateko? Ba al duzu agintari gustukorik? Zein? Zergatik?

3.4. “Kikilduko ez diren agintari libre-pentsalariak behar ditugu”. Platonen ustez agintari eredugarri batek zer ezaugarri izan behar ditu? Eta Makiaveloren ustez?

Antropologiaren ikuspegitik sakondu nahi baduzu, hona hemen Marvin Harrisen *Buruzagiak, gidariak eta zapaltzaileak* liburua.

<https://edicionescrintental.files.wordpress.com/2014/05/jefes-cabecillas-abusones.pdf>

3.5. “Kulturaren alde egitea gudaren aurka egitea ere bada”. Guda ekiditeko lagungarria izan daiteke. Freuden iritzi berekoa da Italo Calvino idazlea, eta halaxe adierazten digu *Jeneral bat liburutegian* ipuinean.

Ipuina entzun eta eman ezazu ipuinari buruzko iritzia: norbere ideiak zalantzan jartzea eta jarrera kritikoak —zein autokritikoak— gerraren kontrako antidotoa izan daitezke? Kontrajarri ipuina nazismoak liburuekiko izandako jarrerarekin (Freuden eta Einsteinen liburuak erre zituzten, besteak beste).

<http://nosotrosteleemos.blogspot.com/2014/03/un-general-en-la-biblioteca-por-angela.html#>

## 4. GUDA EKIDITEKO ERAKUNDE INTERNAZIONALA

Einsteinen hitzetan “nazioarteko edozein gatazka epaitu, legeztatu eta konpon dezakeen erakunde bat sortzea gudak ekiditeko konponbiderik errazena litzateke. Baina ez daukagu nazioez gaindiko horrelako erakunderik eta izatetik oso urrun gaude”, halaxe esan zuen 1932an; 1945ean, berriz, NBE sortu zen (4.1, 4.2, 4.3).

4.1. Bilatu ezazu NBEren historiari buruzko informazioa.

4.2. Badira NBEren erabakiak bertan behera uzteko beto-eskubidea daukaten nazioak. Zein dira? Zergatik? Justua ote da?

4.3. Hausnartu ea Einsteinen ustez nolakoa izan behar duen erakunde internazional batek. Nazio Batuen Erakundeak betetzen al ditu ezaugarri horiek?

4.4. “Epaimahai bat gizakiz osaturiko instituzioa da, eta, ondorioz, beren erabakiak baldintza edo presio estrajudizialen eraginpean egon daitezke” (+4.5).

Einsteinek zuzenbidean arriskuak aurreikusi zituen: botere judiziala presio estrajudizialen eraginpean egon daiteke. Ezagutzen duzu horren adibiderik? Bilatu ezazu informazioa ondorengo kasuei buruz: 2018an espetxeratutako Kataluniako *consellerrak*, La Manada auzia...).

4.5. Zuzenbidearen arrisku estrajudizialak saihesteko, Bolivian botere judiziala bidezkoago izateko neurriak hartu dira.

Ikus:

<https://www.nuevatribuna.es/articulo/america-latina/bolivia-unico-pais-mundo-elige-jueces-voto-popular/20171202102802145944.html>

Zer uste duzu? Konponbide egokia izan daiteke?

4.6. “Batasunaren izenean aginte-eremua zabaltzen”: Bilatu ezazu horren adibide izan daitekeen NATOri buruzko informazioa. Horrelako erakundeak bakearen alde egiteko sortzen dira, baina ez ote dute bestela egiten?



4.7. “Jokabide eredugarria oinarri”: Zer betebeharrak eta jokabide eredugarriak buruz ari da Freud? Bilatu ezazu Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalari buruzko informazioa.

## 5. GUDAREN INDUSTRIA: ARMEN NEGOZIOA

“Badira gudaren negozioarekin aberasten diren arma-fabrikatzaileak eta saltzaileak: beren interes pertsonalak gizartearen interesen gainetik jartzen dituzte”.

5.1. Bilatu eta azter ezazu estatuen aurrekontuetan gastu militarren zenbatekoa. Bilatu zeintzuk diren armagintzan ari diren enpresak eta zer-nolako irabaziak dituzten.

Ikus:

<https://www.lamarea.com/2016/02/24/el-floreciente-negocio-de-la-guerra/>

5.2. Ignacio Robles suhiltzaileak agindutako lanari uko egin zion 2017an (Bilboko Portuan Saudi Arabiara bidaltzeko itsasontzi bat armaz betetzea). Erantzun horrek bere lanean ondorioak izan zituen.

Bilatu ezazu horri buruzko informazioa.

[https://www.eldiario.es/norte/euskadi/custodiar-Arabia-Saudi-implicarse-refugiados\\_0\\_647785763.html](https://www.eldiario.es/norte/euskadi/custodiar-Arabia-Saudi-implicarse-refugiados_0_647785763.html)

<https://www.20minutos.es/noticia/3269138/0/bombero-expedientado-bilbao-armas-arabia-saudi-ignacio-robles/>

Zer esango zenioke Ignacio Roblesi zu bazina haren seme edo alaba? Eta haren emaztea izango bazina? Edo haren laguna? Zuk zeuk zer iritzia duzu hark egindakoari buruz?

## 6. GUDAREN ALDEKO MANIPULAZIO MEDIATIKOA

6.1. “Gehiengo maila guztietako soldaduek osatzen dute, baita guda ogibide dutenek ere”.

Normalean nortzuk izaten dira bizitza frontean ematen duten soldaduak? Azter itzazu klase sozialen arteko desberdintasunak armadan.

Pobrezia eta armadaren arteko erlazioa zorrotz kritikatu du Michael Moore zinemagileak. Ikus *Fahrenheit 911* 2004ko dokumentalaren pasarte hauek: <https://www.youtube.com/watch?v=p-6rnRlePpo>

Noren semeak izan ohi dira soldaduak? Norengana jotzen dute marineek jendea armadara errekrutatzeke? Eta norengana ez dute jotzen?

1) Bideoa, 1:23:54tik 1:30:00ra.

2) Bideoa, 1:55:29tik 1:59:00ra.

6.2. “Prentsa, eskola, eta, oro har, eliza ere gutxiengo boteretsuak kontrolatzen ditu, eta horiek bitarteko, gehiengoaren emozioak menderatu eta haien interesen arabera gobernatzen dituzte”.

Komunikabideek gizartearen iritzia maneia dezakete? Noren esku daude? Horren adibide bat daukagu Noam Chomsky idazlearen *Como nos venden la moto* liburuan.

Azter dezagun gobernu batek bideratutako lehen propaganda-lana, Woodrow Wilsonen agintaritzan burututakoa, hain zuzen. 1916an presidente aukeratu zutenean, Lehen Mundu Gerra hasia zegoen eta haren politika bakezalea zen (...). Estatu Batuetako herritarrak ere bakezaleak ziren, eta ez zuten Europako gudan parte hartzeko inolako beharrik ikusten. Hala ere, Wilsonen administraritzak erabakia zeukan herria gerran sartzea. Ondorioz, zer edo zer egin behar zen herritarren iritzia aldatzeko eta parte-hartzea egokia zela pentsarazteko. Horrela, Creel batzordea sortu zen, gobernuaren propaganda batzordea, eta, sei hilabeteren buruan, herria bakezale izatetik beliko izatera pasatu zen: gudara joan, mundua salbatu, eta alemana zen oro suntsitzeko gogoz.

Chomsky, N. *Cómo nos venden la moto*. Icaria, Bartzelona, 1995 (8-9 orr.)

Bururatzen al zaizkizu manipulazio mediatikoaren adibide gehiago? Bilatu ezazu eta klasean komentatu.

6.3. “Intelektualak arriskutsuak izan daitezke, haiek kontrolatzen baitute herriaren borondatea”.

Einsteinek biziki kritikatu du, intelektualek gudarekiko duten jarrera. Lehen Mundu Gerran gertatutakoa aipatu beharra dago kritika hori hobeto ulertzeko:

(...) gatazkaren hasierak sukar belikoa piztu zuen, eta Europako pentsalari ospetsuenek ere gudaren alde egin zuten, (...) Rainer Maria Rilke, Hugo von Hofmannsthal, Thomas Mann, eta Stefan Zweigek berak ere berdintu jokatu zuten. Hasieran behintzat, kultura, literatura eta arte-munduko hainbat pertsona ospetsuri gogoko ideia iruditu zitzaizkien; haien ustez, gudak europar intelektualen dekadentziaren amaiera eta arimaren garbikuntza ekarriko luke (...) Herritar gehienek bere egin zituzten ideiak. Adibide horrek ederki erakusten du ustezko pertsona alfabetatuak erregresio kolektiborako duen joera (...).

Seguí, L. *El enigma del mal*. F.C.E, Madril, 2016 (28.orr)

Bilatu ezazu informazioa: Nortzuk dira testuan aipatzen diren intelektualak eta zer esan zuten Lehen Mundu Gerra piztu zenean?

6.4. “Izan ere, ez daukate bizitzarekin harreman zuzenik: inprimatutako orrialdeekin erlazionatzen dira, eta jolastu besterik ez dute egiten paperezko bizitzarekin”.

Intelektual adituek ez dituzte sarritan gertaerak behar bezala aztertzen, interes ideologiko-ekonomikoak direla eta. Hori da behintzat Michael Moorek salatzen duena *Bowling for Columbine* dokumentalean. Ikusi zer-nolako erantzunak ematen diren, haien ikastetxean tiroka hasi ziren bi neraberen bortizkeria azaltzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=NYKe2kgfgXY>

(42:10-50:00 min)

Zer uste duzu? Zuk nola azalduko zenuke?

6.5. “Uste dut gudak ez duela ezta antzinako heroismo aukerarik ematen ere”.

Zein ziren greziar mitologiako heroien ezaugarri psikologikoak?

Ba al dago gudaren aldeko propagandarik Homero eta Hesiodoren poema heroikoetan?

Hausnartu ezazu koldarkeriaren aldeko etika antiheroikoari buruz. Interesa baduzu bilatu informazioa *Arkilokoren ezkutuari* gainean.

## 7. GUDA ETA EMOZIOAK: ZEIN OTE DA GORROTOAREN OINARRIA?

7.1. “Gizakion bihotza gorrotoz eta suntsipenerako gogoz beterik omen dago”. Baieztapen gogorra Einsteinek idatzitakoa. Zergatik ote da? Zer uste duzu?

7.2. “Gorrotorako pultsioa bestelako egoera askotan ere izan badugula”. Gudaz aparte, gorrotorako pultsioa bestelako egoera askotan ere izan badugula dio Einsteinek. Zeintzuk izan daitezke bestelako egoera horiek? Bilatu ezazu egunkarian zure ustez gorrotoaren ondorioz egindako ekintzen gaineko albisteak, eta sailkatu gaika.

7.3. “Pulstio horren adibide ditugu sasoi bateko guda zibilak –debozio erlijiosoan eraginez sortuak–, egungo arazo sozialak edota gutxiengo etnikoen aurkako jazarpenak”.

Zein ote da indartsuagoa, gorrotoa edo amodioa? Wislawa Szymborskak poema bat idatzi zion gorrotoari; bertan, gorrotoa sormenarekin lotzen du, eta ez soilik suntsipenarekin.

**GORROTOA** (Wisława Szymborska)

Itzulpena: Pako Aristi.

Begira zein bizkor jarraitzen duen  
eta zein ondo kontserbatzen den  
gorrotoa gure mendean.  
Zelako abileziaz gainditzen dituen trabak,  
zein erraza zaion salto egitea  
eta harrapakinari zast lepotik heltzea.

Ez da beste sentimenduak bezalakoa.  
Zaharragoa da, eta, era berean, gazteagoa.  
Berez sortzen ditu  
bititza ematen dioten haserreak.  
Lotan badago, inoiz ez da loaldi sakona.  
Logabeziak ez dio indarrik kentzen, eman baizik.

Erljioen laguntzaz, edo haiek gabe,  
irteera-lekuan dago beti.

Aberriaren izenean, edo ez,  
karrerari ekiteko prest beti.  
Hasieran justiziarekin ere nahasten da.  
Gero bakarrik korrituko du.  
Gorrotoa. Gorrotoa.  
Amodiozko estasi baten zirkinak  
itxuragabetzen dio aurpegia.

Zein goibel eta zabar diren  
beste sentimenduak!  
Noiz bildu du elkartasunak jendetzarik?  
Errukia iritsi da inoiz lehena helmugara?  
Zalantzak zenbat jende erakartzen du?  
Gorrotoak soilik liluratzen du jendea,  
eta horretaz<sup>13</sup> asko daki berak.

---

<sup>13</sup> Jatorrizko testuan *honetaz*.

Gai da edozertarako, azkarra, oso langilea.  
Ez dago esan beharrik  
zenbat kantu konposatu dituen.  
Historiako zenbat orri osatu dituen.  
Zenbat alfonbra zabaldu dizkioten gizakiek,  
zenbat plazetan, zenbat futbol-zelaietan.

Ez gaitezen engaina:  
Edertasuna sortzen daki.  
Zoragarriak dira bere suzko mihiak  
Gau ilunean.  
Izugarriak goizalbako bonbardaketen irudiak.  
Ukaezina bere hondakinen zirrara patetikoa,  
zutik geratu den zutabe bakarraren  
Umore beltza.

Kontrastearen maisua da  
isiltasunaren eta harrabotsaren artean,  
odol gorriaren eta elur txuriaren artean.  
Eta, batez ere, inoiz ez da aspertzen borrero txukunaren eta  
txikitutako biktimaren irudiaz gozaten.

Beti erronka berritarako prest.  
Itxoin behar bada, itxoiten daki.  
Itsua dela diote. Itsua?  
Frankotiratzaile baten begiak dauzka,  
eta itxaropentsu begiratzen dio etorkizunari.  
Beste inork ez bezala.

Zer gustatu zaizu gehien poematik? Eta gutxien? Justifikatu zure erantzuna.

7.4. “Hasiara batean gizakion arteko gatazkak indarkeriaren bidez konpontzen ziren”.

Freudek era mitikoan planteatzen du *Totem eta tabu* liburuan gizadiaren jatorriari buruzko hipotesia. Zer dio filosofiak gizakiaren izaerari buruz gizarteratu baino lehen? Iker itzazu giza naturaz Rousseau eta Hobbes pentsalarien arteko desberdintasunak. Gizakia jaiotzez ona da eta gizarteak gaizto bihurtzen du, ala gizaki gaiztoak gizartearen lege zorrotzak eta zigorrak behar ditu besteak ez kaltetzeko? Zuk zeuk zer uste duzu? Zergatik? Erantzuteko lagungarria izan daiteke *Eulien ugazaba* filmaren zati hau ikustea.

1:06:00 - 1:08:00

<https://www.youtube.com/watch?v=i6NxdmK8vbs>

7.5. *Eulien ugazaba* eleberrian zein filmean, ederki ikus daiteke taldean pertsona bakar baten indarkeria inposatzeko grina.

<https://www.youtube.com/watch?v=i6NxdmK8vbs>

Pelikula ikusi ondoren erantzun ondoko galderei:

7.6.1. Konparatu eta hausnarketa bat egin pelikulan dauden bi lidergoen artean: Jack vs Ralph.

7.6.2. Zein rol dute filmean beldurrak eta munstroak? Zertan interesatzen zaio botereari beldurra sortzea?

7.6.3. Asmatu filmaren beste amaiera posible bat.

7.6. “Hasiara batean gizakion arteko gatazkak indarkeriaren bidez konpontzen ziren. Animalia-erreinuan hala da, eta gizakiak ez luke bere burua hortik kanpo sailkatu beharko”.

Hausnarketarako: Zure ustez zerk bereizten gaitu animaliangandik? (Aukeran kontsultatu Joxe Azurmendi *Giza aberearen bakeak eta gerrak* liburua. Lagungarria izan daiteke bereziki hirugarren kapitulua: “Giza aberea”, 61-72. orrialdeak).

7.7. “Esango nuke ideia nazionalisten arrakastak kontrako efektua ere sortzen duela: beste nazioekiko gorrotoa sustatzea”.

Uste duzu nazionalismoak beste nazioekiko gorrotoa sustatzen duela? Zein kasutan da horrela? Eta zein beste kasutan ez?

7.8. “Giza jokabidearen arrazoiak haize-arrosaren 32 norabideen arabera izendatu eta sailkatu daitezke; besteak beste, ogiaogia-ospea, edo ospeaospea-ogia. Gizakiak gudara deituak direnean, beraz, baliteke beren erantzun baikorrean askotariko barne-arrazoiak egotea, nobleak zein xumeak, aitortzen direnak eta isiltzen direnak...”.

Asma ezazu hamaika motibazioz burututako ekintza bat. Zein da? Zerrendatu motibazio posible horiek? Zeintzuk aitortu eta zeintzuk isildu?

7.9. “Historiako gertaera krudelen aurrean, sarritan, argudio idealistak aitzakia besterik ez dira, bulkada suntsitzaileak aurrera eramateko. Beste batzuetan, berriz –Inkiszio Santuaren kasuan adibidez–, argudio idealak kontziente izan arren, badirudi suntsitzaileek inkontzienteki jarduten dutela”.

Bilatu ezazu inkisizioari buruzko informazioa. Zer argudio idealisten izenean jardun ziren? Zein ziren inkisidoreen gozamenak eta beldurrak?

7.10. “Kontua ez da gizakion heriotza-pultsioa guztiz ezabatzea, baizik eta beste irtenbide bat ematea, gudara ailegatu gabe”.

Zer irtenbide ditu heriotza-pultsioak? Zure kasuan zer irtenbide ematen diozu barne-gorrotoari? Zerk laguntzen dizu gorrotoa bideratzen —eztanda egin gabe—?

Nahi izanez gero ikusi *Laranja Mekanikoa* pelikula klasikoa, bertan heriotza-pultsioa guztiz ezabatzearen arriskuaz hitz egiten da.

7.11. “Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua beste”: Zein da zure iritzia agindu moral horri buruz?

Sakondu nahi baduzu, Bauman soziologoak *Maitasun likidoa* liburuko azken kapituluan lantzen du ideia hori, baita Freudek *Egonezina Kulturean* liburuko zortzigarren atalean.

7.12. “Zer dela-eta gu bion —zein beste askoren— gudaren kontrako altxamendua? Zergatik ez dugu onartzen bizitzako beste zoritxar guztiak bezala?": Zer diote filosofo estoikoek errealitatearen onarpenari buruz? Zein da bizitzan aldarrikatzen duten emozioa?



7.13. “Gure arbasoentzako atseginak ziren hainbat sentsazio, guretzako axolagabeak, nazkagarriak edo jasanezinak dira”.

Zein? Pentsa ezazu adibide bat eta klasekideekin partekatu.

## 8. GUDAK HISTORIAN ZEHAR: POLITIKA ETA ANTROPOLOGIA

8.1. “Kasu horretan, heriotza eman gabe, aurkaria menderatzera mugatuko litzateke erabilitako biolentzia. Hasiera batean behintzat horretan datza etsaiaren bizitzarekiko errespetua”.

Hegel filosofo alemaniarra *jauna eta esklabuaren arteko dialektikaz* mintzo da gizadiaren bilakaera azaltzeko. Bilatu eta aipatu zein den horren esanahia.

8.2. “Batasunak egiten dio aurre indarkeriari, eta taldeak zuzenbidea eraikitzen du pertsona bakar baten indarraren kontra”.

Taldea pertsona bakar baten indarraren kontra batzen da: bururatzen zaizu eguneroko bizitzan egoera hori azaltzeko bestelako adibiderik?

8.3. “Komunitate barruan botere-harremanak berezkoak baitira: gizon eta emakumeak, guraso eta seme-alabak, eta, gerraren ondorioz, jaun edo esklabo bihurtuko diren irabazle eta galtzaileak”.

Zure ustez botere-harreman guztiak kritikagarriak dira ala ba ote daude justuak direnak? Idatzi zuretzako justuak eta injustuak diren botere-harremanen adibideak.

8.4. “Menderatzaileek beren interesen arabera legeak egingo dituzte, eta menderatuei eskubideak murriztu”.

Nortzuk egiten dituzte legeak? Nor da eta zer dio Karl Marxek horri buruz? Zure ustez gaur egungo mundua ulertzeko klase-borrokaren ideia oraindik ere baliagarria ote da? Zergatik? Zer dela eta sindikalismoaren eta langile-mugimenduaren azken urteetako beherakada?

8.5. “Gizadiaren historia aztertuko bagenu, konturatuko ginbateke luzea dela etengabeko gatazken zerrenda”.

Zer gerra(k) ezagutzen duzu (dituzu)? Zein izan da amaiera edo konponbidea?

8.6. “Gerran irabazleak eta galtzaileak ditugu, eta azken horiek erabateko menderatze eta lapurretak pairatuko dituzte”.

Ikus gerran lapurreta eta irainak jaso dituzten pertsonen testigantzak. Horretarako liburu gomendagarria: *Gerrak ez du emakume aurpegiarik*. Ikus liburuaren aurkezpena.

<https://www.youtube.com/watch?v=DGuJXqwPbYQ>

8.7. “Ezinezkoa da konkista-gerra horiei buruzko iritzi bateratu bat ematea. Iraganean askok ezbeharrak baino ez zituzten ekarri –turkiarren eta mongoliarren artekoak bezala, adibidez–; beste batzuk, ordea, indarkeriatik zuzenbiderako eraldaketan lagungarriak izan ziren, giza talde bateratuagoak osatu, eta biolentzia ekiditeko antolakuntza legal berriak eraiki zituztelako. Erromatar konkisten ondorioz, adibidez, bake preziatua lortu zen herri mediterraneoetan. Frantziako erregeen handinahikeriak Frantzia bateratu zuen”.

Testuaren edukietan sakontzeko, bilatu ezazu Freudek aipatzen dituen guda historikoen adibideei buruzko informazioa: Mongoliaren eta Turkiaren artekoa, Inperio erromatarraren konkistak eta Frantziaren batasuna.

8.8. Freudek dio indarkeriaz batu diren lur-eremuek sakabanatzeko joera daukatela, haien arteko kohesio eskasagatik.

Bilatu ezazu antzinako Jugoslaviaren inguruko informazioa horrelako kasuen adibide gisa. Beste adibideren bat bururatzen zaizu? Idatzi eta klasean komentatu.

8.9. “Komunitatearen batasunerako bi baldintza hauek ezinbestekoak dira: batetik, indarkeriaren monopolioa eta, bestetik, kideen arteko lotura emozionala mantentzea”.

Pentsa itzazu baldintza kontrajarri horiek betetzen dituzten bi adibide: 1) agintarien indarkeriaren monopolioagatik batuta mantentzen dena; 2) lotura emozionalengatik batuta mantentzen dena. Zein ote da egokiagoa? Zergatik?

8.10. “Antza, lurralde zoriontsuak daude. Bertan, natura emankorrak gizakiei biziraupenerako behar duten guztia bermatzen die, eta jendea –elkar erasotu gabe– modu baketsu eta lasaian bizi omen da”.

Zeintzuk izan daitezke lurralde zoriontsu horiek? Antropologoek topatu dituzte gudarik gabeko urruneko tribu edo kultura horiek? Egin ezazu horri buruzko zure bilaketa kritikoa.

8.11. “Ez al dauka komunitateak norbanakoaren bizitzaren gaineko eskubiderik? Guda guztiak berdin-berdin gaitzets daitezke, edo batzuk besteak baino justifikagarriagoak ote dira? Nazioak eta erresumak beste batzuk konkistatzeko eta suntsitzeko prest dauden bitartean, ez al dira horiek ere defentsarako armaturik egon behar?”

Taldeka eztabaidatu Freudek planteatzen dituen hiru galdera horiek.

## 9. GUDARI BURUZKO GALDERA

9.1. Einstenek Freudi idatzitako gutuna irakurri ondoren, jar zaitez Freuden lekuan, eta moldatu zurera erantzunaren urtea eta lekua. Zu izan zara gutunaren hartzailea: Zer erantzungo zenioke Einsteini gudaren zergatiari eta hori ekiditeko moduei buruz? Idatz ezazu gutuna eta partekatu zuen ideiak lauko taldeetan.

## 10. GUDA GENERO-IKUSPEGITIK

10.1. Generoak baloreak baldintzatzen ditu? Ba al daude balore maskulinoak eta femeninoak? Nolakoak dira armadaren baloreak? Lauko taldeetan eztabaidatzeko galderak.

10.2. Zein da historian zehar emakumeek gudetan izan duten parte-hartzea? Bilatu ezazu horri buruzko informazioa.

10.3. Bilatu ezazu “Emakumeak gerraren aurka” plataformari buruzko informazioa.

10.4. 1938an Virginia Woolf idazleari Freudi egindako galdera bera egin zioten gutun batean: zergatik guda? Ba al dago guda ekiditeko modurik? Erantzuna *Hiru guinea* liburuan eman zuen. Bertan egindako bestelako hausnarketen artean, honako hau irakur dezakegu:

“Erraz topa daiteke janzkeraren eta gerraren arteko lotura: soldaduek daramatzate gizonezkoen arroparik dotoreenak. (...) suposatzen dut ikusleak liluratzeko dela batetik, eta –handikeria dela medio– soldadu izateko gogoia pizteko bestetik. (...) Zentzu horretan, emakumeon bestelako izaerak gudaren aurka egin dezake. Guk geuk arropa horiek janztea debekatuta daukagu, eta haiei buruzko iritzia eman dezakegu; hau da, ez gaituela liluratzeko janzten dutenen espektakuluak. Are gehiago, soldaduak ikustea barregarria, ankerra eta desatsegina iruditzen zaigula. (...) Ondorioz, adierazten badugu galoiak daramatzaten pertsonak –ustezko dotoreziaz– barregarriak direla eta haien jakintza arbuiagarria dela, zeharka behintzat gudaren kontra jardungo dugu, eta soldaduak gudara eramaten dituzten emozioak ahuldu.  
(...) Uniformeak arbuia<sup>14</sup> ditzakegu: arazoa konpontzeko ekarpen txikia baina agian baliagarria.

V.Woolf *Hiru Guinea*, Penguin Random House, Bartzelona, 2017 (1821-182. orr.)

10.4.1. Zer uste duzu, ba al dauka umoreak gauzak aldatzeko ahalmenik?

10.4.2. Gaur egun emakumeek armadan parte har dezakete. Uste duzu armadaren izaera aldatzeko aukera izan daitekeela? Zergatik?

10.5. Irakur ezazu Angela Y. Davis (1944) Estatu Batuetako filosofoaren honako testu hau:

---

<sup>14</sup> Jatorrizko testuan *arbuia*.

Errentaren gaineko zergaren dolar bakoitzeko 60 zentimo baino gehiago Pentagonoak jasotzen ditu. Urtean 22 mila dolar irabazten dituen norbaitek urtebeteko soldata osoa baino diru gehiago eman zion Pentagonoari 1985etik 1989ra bitartean, MX misilak ekoizteko eta Defentsa Estrategikoaren ekimenaren arduradunek –Star Wars deiturikoa– ikerketa eta garapena areagotzeko.

Ekonomia gero eta militarizatuagoaren emaitza da lanpostuak gero eta eskasagoak izatea. (...) Ekonomiaren militarizazio-eredu horrek kalte berezia eragiten die beltzei eta batez ere emakume beltzei. Haietako asko eta asko osasun eta hezkuntza arloetan ari direlako lan bila.

Angela Y.Davis *Emakumeak, kultura eta politika*, Katatrak 2018, Iruñea. (100. or.)

Bestelako zer irizpide izango zenituzke diru publikoa kudeatzeko?

### Lankidetza Intelektualerako Nazioarteko Institutua

Gobernuz kanpoko erakunde bat izan zen Lankidetza Intelektualerako Nazioarteko Institutua, Ginebran 1922an eratua. Sortzaileak pedagogian adituak izan ziren, eta haien helburu nagusia giza eskubideak ezagutaraztea izan zen; horretarako, Europako estatuen hezkuntza-planak bateratu nahi izan zituzten. Geroago, 1925ean, erakundearen zuzendaritza-batzordeak Parisen hartuko du egoitza.

Erakundea gaur egungo UNESCO<sup>16</sup>ren aitzindaria izan zen. Berau 1945ean sortu zen, eta, besteak beste, gobernuek euren hezkuntza-planetan berdintasunari eta ikasleen autonomiari lehentasuna ematea eskatzen du.

Gehiago sakondu nahi baduzu, hona hemen UNESCOren historiari buruzko artikulua mamitsu bat:

<http://unesdoc.unesco.org/images/0006/000666/066614so.pdf>

### Zibilizazioa

*Zibilizazio* hitza Victor Riquetti Mirabeauko markesak sortu zuen XVIII. mendean; asmoa zuen Ameriketako politika kolonialari erantzun eta zibilizazioa basakeriaren aurkako ikur bihurtzea. Maiz, *kultura* terminoaren ia sinonimotzat hartzen da, esanahi bera ez badute ere: zibilizazioa historian eta soziologian aipatzen da bereziki, eta kultura, antropologian.

Hala ere, badira bi terminoak bereizten dituzten ñabardurak. Oro har, esan daiteke zibilizazioa kultura aurreratua dela –antropologiaren ikuspegitik–: idazketa, artea, egitura politiko eta ekonomiko konplexuak eta zientzia garatu ditu. Guizot historiagilearen ustez, aurrerapenaren ideia da zibilizazio kontzeptuaren ezaugarriarik garrantzitsuena. Egun, aniztasun soziala da zibilizazioaren eta kulturaren arteko aldea.

---

<sup>15</sup> Argibide hauek emateko honako iturri hauek erabili dira: Wikipedia, IRALE kontsulta-zerbitzua, Euskalterm terminologia bankua eta Elhuyar hiztegia, besteak beste.

<sup>16</sup> *United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization*.

Irakurtzen ari garen gutunetan, Freudek alemanezko *Kultur* hitza darabil eta Einsteinek, berriz, *Zivilisierte* (zibilizazioa).

## **Pultsioa**

Norbait zerbait egitera bultzatzen duen barne-indar bizia da pultsioa. Helburua lortzean, barne tentsioa baretu egiten da. Freuden psikoanalisian oinarritzkoa da pultsio kontzeptua, eta instintuari edo senari kontrajartzen zaio: animaliek instintuak dauzkate, eta gizakiok, berriz, pultsioak. Horrekin azpimarratu nahi du gizakion instintua asetzeko objektu naturalik ez dagoela. Adibidez, giza kumeak bere pultsio orala txupetearekin ase dezake.

## **Psikosi kolektiboa**

Termino hau Freudek *Ilusio baten etorkizuna* (1927) liburuan erabiltzen du. Bertan erlijioa psikosi kolektibo gisa definitzen du.

## **Premiazko arazoa lantzen duten freuden idatziak**

Heriotza-pultsioa honako liburu hauetan landu du: *Plazeraren printzipioaz haraindi* (1920), *Ilusio baten etorkizuna* (1927) edo *Egonezina kulturean* (1930).

## **Filantropoa**

Filantropoak ingurukoak laguntzea du helburu, bestelako asmorik gabe. Grekerazko *philo* (maitasuna edo adiskidetasuna) eta *anthropos* (gizakia) hitz-elkarketa dugu. Aurkako terminoa misantropo da, gizakiekiko gorrotoa.

Platonen akademiak filantropia goraipatu zuen: enpatia eta eskuzabaltasuna vs berekoikeria.

## F. Nansen

Fridtjof Wedel-Jarlsberg Nansen (Oslo, 1861 - Lysaker, 1930) norvegiar esploratzaile, zientzialari eta diplomatikoa izan zen. 1922an Bakearen Nobel Saria irabazi zuen Nazioen Ligako Goi Ordezkaritzan burututako lanarengatik –Lehen Munduko Gerran biktimei lagundu zien–.

Hasieran, kirol-eskiatzaile gisa ibili zen, eta Ipar Poloko esploratzaile gerora. Arrakasta handia lortu zuen Fram itsasontziarekin Artikora egindako espedizioan; izan ere, beste inor baino gehiago hurbildu ziren Ipar Polora.

Hainbat arlotan erreferente izan zen: zoologia, ozeanografia, ikerketa neuronalak, etab. Ez hori bakarrik, errefuxiatuen zuzendaria ere izan zen Nazioen Ligan. Harena dugu “Nansen pasaportea” –gudako errefuxiatuek beste herrialdeetan asilo politikoa jasotzea ahalbideratzen zuen–.



Nansen pasaportea

## Giza horda

*Horda* hitza giza talde txiki bat adierazteko erabiltzen du Sigmund Freudek. Terminoa *Totem eta tabu* (1912) ikerketa-liburu



antropologikoan aipatzen du. Bertan, hasierako hominidoen jatorria argitu nahi du, eta, horretarako, honako hipotesiak egiten ditu: “Zein da gizartearen jatorrian dagoen hilketa? Zer eragiten du hiltzaileengan? Zer debeku ezarriko dute horren ondorioz?”.

## **Betiereko bakea**

*Betiereko bakea* (1795) Kant filosofoak idatzitako liburu ospetsua da. Freudek bertan latindar esaera zaharra kritikatzeko du: *Si vis pacem parebellum*; hau da, bakea nahi baduzu, presta zaitez gudarako.

## **Egungo gudak askoz ere suntsitzaileagoak dira**

Badirudi esaldi horretan II. Mundu Gerra baino lehenagoko Freuden profetia dagoela. Guda 1939an hasi zen, eta Freudek 1932an idatzi zuen gero eta guda suntsitzaileagoen arriskuaz.

## **Identifikazioak**

Kontzeptu erabat garrantzitsua Freuden teorian. *Masen psikologia eta Niaren analisisa* (1921) liburuan landu zituen, eta bi identifikazio mota bereizi zituen: bertikalak eta horizontalak. Lehenengoak liderrari edo goreneko ideia nagusi bati egiten dio erreferentzia, bigarrenak taldeko kideen arteko loturei.

## **Panhelenismoa**

Panhelenismo deritzo Egeo itsaso-ertzeko greziar hiriak nazio izatea helburu zuen mugimendu politikoari. Ideia bera K.a. V. mendean sortu zen, greziarrek Peloponesoko guda irabaztearekin batera; hala ere, geroko hainbat agintarik eta politikarik iturri beretik edan zuten (Isokrates, Filipino II.a, Alejandro Magno, etab.).

## Orakulua

Antzinako Grezian, ohikoa zen orakulura hurbiltzea eta jainkoei aholkua edo laguntza eskatzea. Bertako emakumezko igarleak edo pitonisak jainkoekin hitz egiteko gai omen ziren. Orakulua deritzo, beraz, ez soilik galdera egiten zen eta erantzuna jasotzen zen tokiari, baita jainkoek ematen zuten erantzunari ere. Ezagunena Delfosekoa dugu, Parnaso mendiaren oinean, Apolo jainkoaren santutegia eta gurtza-tokia.

## Sultan

Arabieraz *sulta* hitzak ‘botere’ esan nahi du, eta *sultanak* ‘botereduna’. Hala zeritzen kalifa –agintari politiko eta erlijiosoa– baten mendeko lurraldea gobernatzen zuten turkiar agintari militarrei. Hainbat herri islamiarretan erabilitako titulua da, erregearen parekoa; hain zuzen ere, lehen sultan ofiziala Ghazniko Mahmu agintaria (998-1030) izan zen.

## Boltxebike

*Boltxebike* hitzak errusieraz ‘gehiengoaren aldekoa’ esan nahi du. Izen hori hartu zuen Errusiako Langileen Alderdiko fakzio batek –Leninen aldekoak–. Beste fakzio bat mentxebikeek osatzen zuten, ‘gutxiengoaren aldekoak’ errusieraz. 1903an, boltxebikeek alderdiaren II. Kongresua irabazi ondoren, eta Leninen tesiei jarraiki, alderdi komunista itxi, profesionalizatu, homogenero eta antolakuntza gaitasun handikoa sortu zuten. 1905eko Errusiako Iraultzak porrot egin eta gero, boltxebikeek jarrera gogortu eta borroka armatuaren aldeko apostua egin zuten. Barne gatazkak zirela-eta boltxebikeek alderdi berria (alderdi komunista) sortu zuten 1912an –Lenin izan zen alderdiburua–. 1917ko Iraultzaren ondoren, boltxebikeak erabat nagusitu ziren eta Errusiako Alderdi Komunista Sobietar Batasuneko alderdi bakarra izan zen. Sarritan boltxebike hitza *komunista* hitzaren sinonimo gisa erabiltzen da.

## **Platonen oturuntza**

*Oturuntza* (K.a 385–370) Platon filosofoak maitasunari buruz idatzitako elkarrizketa-liburua da. Bertan, bazkari baterako gonbidatuek diskurtso bana egiten dute, maitasuna zer den argitzeko.

Freudek maitasunaren eta sexualitatearen kontzeptua garaiko mugetatik at definitu nahi izan zuen, eta biak libidoarekin lotu nahi izan zituen. Oso polemikoak izan ziren umeen sexualitateari buruzko haren idatziak.

## **Aleazio kimikoa**

Aleazioa bi elementu kimikoren —edo gehiagoren— arteko nahasketa da. Nahasketa horrek eragindako substantziak hasierako elementuek ez dauzkaten ezaugarriak eduki ohi ditu —eta batzuetan oso ezberdinak—.

## **G.C Lichtenberg**


Georg Christoph Lichtenberg (1742-1799) alemaniar zientzialaria eta idazlea izan zen. Göttingeneko Unibertsitatean Fisikako irakaslea bazen ere, ezagun egin zen hark idatzitako aforismo irudimentsuengatik. Baina zer dira aforismoak? Aforismoak mezu garrantzitsua edo interesgarria duten esaldiak dira, eta hausnarketa eragitea dute helburu.

## **Haize-arrosa**

Haize-arrosa XVI. mendean dokumentatu zen nabigazio-kartetan, zeruertzean irudikatutako zirkulu baten bidez. Itsas nabigazioko norabideak adierazten ditu eta 32 norabide azaltzen dira bertan: puntu kardinalak (iparra, hegoa, ekialdea eta mendebaldea), alboko lau norabideak (ipar-ekialdea, hego-ekialdea, hego-mendebaldea, ipar-mendebaldea), zortzi tarteko norabideak (ipar-ipar-ekialdea, eki-ipar-

ekialdea, eki-hego-ekialdea, hego-hego-ekialdea, hego-hego-mendebaldea...), etab.

Hona hemen zirkunferentziaren irudia:



## Heriotza-pultsioa edo hil-irrika

Freuden arabera, heriotza-pultsioa edo hil-irrika norberarenganako eta besteenganako erasokortasunean agertzen den irrika da, bizi-irrikari kontrajarria. Zein ote da zuzenagoa?

*Euskaltzaindiaren Hiztegiak* irrika eta pultsio sarreretan honakoa dio:

### irrika

iz. Zerbaitetarako grina edo nahi bizia. Ik. **joran; irrirts**. *Irrika biziz irakurritako liburua. Harekin egoteko irrika gorrian. Askatasun irrika. Irrikaren sukarrak zoraturik.*

### pultsio

iz. *Psikol.* Norbait zerbait egitera bultzatzen duen indar bizia, helburua lortzean asetzen den barne tentsio batek eragina dena. *Pultsio kontzeptua oinarrizkoa da Freuden psikoanalisian eta*

*behinolako instintu edo sen kontzeptuaren moldaera bat bezala azaltzen da harengan.*

Beraz, ikusirik Euskaltzaindiak *irrika* eta *pultsio* nola definitzen dituen, esan dezakegu *pultsio* dela berariazko terminoa, eta *irrika* hitz arrunta. Beraz, termino markatu gisa erabiliko dugu heriotza-pultsio, eta hil-irrika hura azaltzeko modua<sup>17</sup>.

## **Kontzientzia morala barne-agresio gisa**

Gai honetan sakontzeko irakurri Freuden *Egonezina kulturen* liburuko zortzigarren atala.

## **Mitologia**

Mitologiak fantasiako istorioak kontatzen ditu, naturaren eta gizakien auziak azaltzeko. Batetik, kultura edo erlijio baten mitoak ditugu, eta, bestetik, mito horiek biltzen, aztertzen eta interpretatzen duen jakintza-arloa. Mitoak frogaezinak dira eta *logosarekin* (pentsamendu arrazionalarekin) kontrajarri ohi dira.

## **Utopia**

*Utopia* hitzak grekerazko *u* 'ez' eta *topia* 'lekua' batzen ditu. Beraz, 'leku irreal', 'inon ez dagoena' edo 'existitzen ez dena' esan nahi du. Hitza Tomas Morok sortu zuen bere eleberri ezagunaren izenburuan, *Utopia* (1516).

---

<sup>17</sup> Gehigarri gisa, hona hemen Bernardo Atxagak *Etiopia* liburuan heriotza-pultsioari buruz esandakoa: "Freudek ezagutzera eman bezala, inkonszientearen ekintza autodestruktibo multzo bat izendatzen du **heriotza-pultsioa**. Jokabide eta jarrera horiek norbere buruaren suntsipena dakarte, alkohola edo bestelako drogen kontsumoaren ondorioz, edo gehiegizko etsipen filosofikoaren eta autokritikaren ondorioz".

Utopiaren oinarria da gizartea bere horretan gogoko ez izatea eta bestelako gizartea irudikatzea. Utopia, beraz, aldaketa sozialen eragilea da, helburu baitu funtzio kritiko eta konstruktiboa. Utopiaren kontrakoa distopia edo antiutopia da, eta gizarte ustez ideal bat gauzatzeak ekarriko lituzkeen ondorio txarrak islatzen dira bertan.

## **Inhibizioa**

*Inhibizio* esaten zaio ekintza baterako nork bere burua mugatzeari, joerari eusteari. Maitasuna, adibidez, desiraren bultzatzaile handia izan daiteke; beldurra, aitzitik, inhibitzaile eraginkorra.

# ERANSKINA

Psikologia	Historia	Filosofia	Zuzenbidea	Ekonomia	Antropologia	Kultura Zientifikoa	Balio Etikoak
1.1	1.1	1.4	4.1	2.10	3.4	1.2	1.4
2.5	1.2	2.7	4.2	5.1	3.5	2.1	2.3
2.10	1.3	2.8,	4.3	6.1	4.7	2.2	2.4
3.1	1.4	2.10	4.4	6.2	6.2	2.4	2.5
3.4	2.1	3.1	4.5	8.4	6.5	2.6	2.9
5.2	2.2	3.2	7.6	10.5	7.1	2.8	2.10
6.1	2.3	3.3	8.4		7.3	2.9	3.1
6.2	2.4	3.4	8.9		7.4	2.10	3.2
7.1	2.5	3.5	10.5		7.5	4.3	3.3
7.2	2.10	4.7			7.6	9.1	3.4
7.3	4.1	5.2			7.7	10.5	3.5
7.4	4.2	6.1			7.9		4.4
7.5	4.3	6.2			7.10		4.5
7.6	4.6	6.3			7.11		4.7
7.7	6.1	6.4			7.13		5.1
7.8	6.2	6.5			8.2		5.2
7,9	6.3	7.1			8.3		6.1
7.10	6.5	7.3			8.8		6.2
7.11	7.7	7.4			8.10		6.3
7.13	7.9	7.5			9.1		6.4
8.2	8.4	7.6			10.1		7.1
8.3	8.5	7.7					7.2
8.8	8.7	7.8					7.3
8.9	8.8	7.9					7.4
8.10	8.11	7.10					7.5
9.1	10.2	7.11					7.6
10.1	10.3	7.13					7.7
10.4	10.5	8.2					7.8
		8.3					7.9
		8.4					7.10

		8.9 8.10 9.1 10.4					8.1 8.2 8.3 8.4 8.9 8.10 9.1 10.1 10.4 10.5
--	--	----------------------------	--	--	--	--	--



## BIBLIOGRAFIA

ALKSIEVTX, S. *Gerrak ez du emakume aurpegirik*. Elkar, Donostia, 2016.

BROUSSE, M.H. *El psicoanálisis a la hora de la guerra*. Tres Haches, Buenos Aires, 2015.

CHOMSKY, N. *Cómo nos venden la moto*. Icaria, Barcelona, 1995.

DAVIS, A. *Emakumeak, arraza eta klasea*. Katakarak, Iruña, 2016.

EINSTEIN, A.; FREUD, S. *Warum Krieg?* Internationalis Institut, Paris, 1932.

HARRIS, M. *Jefes, cabecillas y abusones*. Alianza, Madril, 1993.

FOUCOULT, M. *La verdad de las formas jurídicas*. Gedisa, Bartzelona, 1980.

FREUD, S. *Egonezina kulturen*. Gaiak, Donostia, 2009.

FREUD, S. *Tomen y tabú*. Alianza, Madril, 2011.

FREUD, S. *Más allá del principio de placer*. Alianza, Madril, 2016.

FREUD, S. *El porvenir de una ilusión*. Alianza, Madril, 2016.

FREUD, S. *Consideraciones de actualidad sobre la guerra y la muerte*. Alianza, Madril, 2010.

FREUD, S. *Porque la guerra*. Amorrortu obras completas XXII, Buenos Aires, 2017.

HAN, B-C. *Topolgia de la violencia*. Herder, Bartzelona, 2016.

MARX, K. *Manifestu komunista*. Engels Fundazioa, Madril, 1998.

PLATON. *Menon*. Klasikoak, Donostia, 1990.

PLATON. *Otoruntza*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1975.

SEGUÍ, L. *El enigma del mal*. F.C.E, Madril, 2016.

WOLF, V. *Tres guineas*. Lumen, Bartzelona, 2013.